



**2024KO APIRILAREN 22KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko apirilaren 22an, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2024ko apirilaren 8an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2024ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 29 zenbakidun zerrenda, BERROGEITA HAMAIIKA MILA LAUREHUN ETA BAT euro ETA BERROGEITA BAT zentimokoa (51.401,41 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 22-11-02 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua handitzea, astean 3 ordutik 10 ordura, martxoaren 11tik aurrera, onuradunaren osasun egoera okertu delako. Erabiltzailearen ekarpena % 2koa da.
- 23-11-09 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua handitzea astean 8 ordutik 10 ordura, martxoaren 20tik apirilaren 7ra, onuradunak behar handiagoa duelako. Erabiltzailearen ekarpena % 100ekoa da. Apirilaren 8tik aurrera etxeko laguntza zerbitzuan baja ematea onuradunak hala eskatuta.



Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 135 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 144 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 96 da.
- 670 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 88,80 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 96 da.
- 09-01-007 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 150 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 21-01-009 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 138 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 92 da.
- 22-01-010 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 250 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 23-01-001 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 23-01-006 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 130 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 23-01-007 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 100,50 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 167,50 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 67 da.
- 23-01-010 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 42,44 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik ekainera. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 23-01-015 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 132 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik apirilera. Eman daitekeenaren % 88 da.
- 23-01-016 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 150 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 24-01-004 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 150 €-ko dirulaguntza ematea martxotik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 24-01-005 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 75 €-ko dirulaguntza ematea martxotik maiatzera, alokairu gastuetarako hilean 125 €-ko dirulaguntza ematea martxotik maiatzera eta lehen mailako premietarako 150 €-ko dirulaguntza ematea martxotik maiatzera. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 24-01-006 zenbakidun esped.: lehen mailako premietarako 150 €-ko dirulaguntza ematea martxotik apirilera. Eman daitekeenaren % 100 da.

Gureak lantegira joateko garraiorako dirulaguntza.-



**LAZKAOKO
UDALA**



- 24-17-01 zenbakidun esped.: Gureak lantegira joateko urtean 447,70 € ematea. Zehazki 40,70€ hilean, abuztuan izan ezik.
- 24-17-02 zenbakidun esped.: Gureak lantegira joateko urtean 447,70 € ematea. Zehazki 40,70€ hilean, abuztuan izan ezik.

Orobione jubilatuta eta pentsiodun elkarteari dirulaguntza.-

Orobione jubilatuta eta pentsiodunen elkarteari 2024. urterako dirulaguntzaren lehen zatia, hau da, 5.800 €-ko dirulaguntza ematea, urteko ekintzen garapenerako eta oinarrizko egituraren funtzionamendurako.

Gazte Laguntzaileentzat bekak.-

2024. urterako Lazkaoko Gazte Laguntzaileen bekak eskatzeko deialdia egitea.

Beka hauen oinarri arautzaileak 2016ko urtarrilaren 26ko osoko bilkuran onartu-ta-koak dira eta 2016-03-30eko GAO n argitaratu ziren.

- Eskeraerak aurkezteko epea 2024ko maiatzaren 31 artekoa izango da.
- Gehienera 2.000,00€ko diru laguntza onartuko da pertsonako.
- 2024 urteari dagokionean aurrekontua 4.000,00€koa izango da.

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

San Benito ikastolari.-

Karrakako festako oparien erosketak egin ahal izateko, 232,65 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 481.02.323.00 partidatik egingo da.

Antzar konpartsari.-

Lazkaoko jaietan erraldoi eta buruhandien bilkura antolatzeagatik 4.000 €-ko dirulaguntza ematea onartzea.

Orain, 2.500 €-ko lehen zatia ordaintzea onartu da.

V.- KIROL ETA GAZTERIA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kirol eta Gazteria batzordetik, "Lazkao, Kirol Sariak" emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:



Lazkao, Kirol Sariak.-

“Lazkao, Kirol Sariak” arautzeko oinarriak onartzeko proposamena egin du Kirol eta Gazteria batzordeak.

Proposamenari erantsitako oinarriek honakoa diote:

“LAZKAO, KIROL SARIAK – OINARRIAK

Lehena.- Xedea / Helburua

“Lazkao, Kirol Sariak” ekimenaren helburua Lazkaoko edo Lazkaon, kirolaren eremuan nabarmendu diren pertsona zein erakunderi, izandako lorpenei eta egindako lanari aipamen eta aitortza berezia egitea da, jendaurrean jakinarazi eta esker ona formalki adieraziz.

Bigarrena.- Izaera

Sariak ohorezko izaera dute, ez dute inolako ekarpen ekonomikorik izango.

Urteroko maiztasuna izango dute eta San Miel jaien bueltan, ospatuko den ekitaldia publikoan saritu bakoitzari oroigarri bat emango zaio.

Hirugarrena.- Balorazio batzordearen osaketa

- Lazkaoko Udaleko kirol zinegotzia.
- Lazkaoko Udalean ordezkariak duten talde politikoetako zinegotzi bana.
- Lazkaoko Udaleko kirol teknikaria.
- Batzordeko kide izatea erabakitzen duen Kirol Elkarte bakoitzeko ordezkari bana.
- Lazkaoko albisteak lantzen dituen kazetari bat.

Laugarrena: - Izendapenak edo hautagaitza proposamenak

Proposamenak edozein pertsona, erakunde edo Balorazio batzordeak egin ahal izango ditu.

Lazkaoko Udalak prestatutako aplikazioaren bidez edo Udaleko, nahiz Joxemiel Barandiaran Kiroldegiko harreran, dagokion inprimakia betez aurkeztu ahal izango dira hautagaitza proposamenak.

Proposamenak aurkezteko epea ekainak 1ean irekiko du Udalak, eta abuztuaren 31an amaituko da.

Egiten den proposamena arrazoitu egin beharko da, merezimendu, lorpen edo kirol ibilbidea arrazoitu eta azalduz.

Bostgarrena: - Kategoriak



* Lorpenen araberako sariak:



LAZKAOKO UDALA

- Gipuzkoako txapelketa irabaztea
- Euskadi mailan lehen hiru sailkatuetan izatea
- Espainia mailan lehen zortzi sailkatuetan izatea
- Espainiaz gaindiko lehiaketetarako sailkatua edo aukeratua izatea
- Partehartze nabarmen edo lorturiko emaitza nabarmenak

Lazkaon bizi beharko dute edo kirol bizitza herrian egin beharko dute.

* Kirol taldeen maila igotzea esanguratsua

* Lazkaoko kirolaren alde modu aktiboan laguntzen duen edo lagundu duen pertsona edo erakundeak saritzea,

* Bizitza osoko Kirol ibilbidea.

Seigarrena: - Prozedura.

"Lazkao Kirol Sariak" jasoko dutenen hautatuen zerrenda balorazio batzordeak proposatuko du:

- Balorazio Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertuko ditu eta baldintzak betetzen ez dituzten proposamenak baztertuko dira.
- Balorazio Batzordeak jasotako proposamenak saria merezi ahal izateko merezimenduak nahikoa ez direla iritziz gero, ez da saririk bideratuko.
- Balorazio Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu eta bakoitzak dituen merezimenduak azalduz sariak jasotzeko zerrenda proposamena luzatuko dio Gobernu Batzordeari.
- Gobernu Batzordea izango da sarituen zerrenda onartuko duena."

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, "Lazkao, Kirol Sariak" arautzeko oinarriak onartzea erabaki du.

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeirenean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.


LAZKAOKO
UDALA